



Xabier ezkutatutako  
pertonaiaren bila dabil...

Etorkizuneko pertsonaiaren bila



ALBOAN



Compañía de Jesús



V CENTENARIO  
DEL NACIMIENTO DE  
FRANCISCO DE JAVIER

## Aurkezpena

1.	Sarrera	3
2.	Helburuak eta edukiak	4
3.	Metodologia	6
4.	Ebaluazioa	7
5.	Jarduerak	8
	<b>A. MULTZOA</b>	
	Nire familia	9
	Azpilikuetakoko Gaztelua	11
	Xabierren historia	13
	<b>B. MULTZOA</b>	
	Multzoak	15
	Nire lagun-taldea eta ni	18
	Laguna - besarkada	19
	<b>C. MULTZOA</b>	
	Haizemailea	20
	Nik gustuko dut	21
	Has dadila ekitaldia!	22
	<b>D. MULTZOA</b>	
	Bidegabekeria baten historia	23
	Eta nik, zer egingo dut??	24
	Etorkizuneko pertsonaia	26

## 1. Sarrera

2006. urtean San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzen dugu. Hori dela eta, material didaktiko hau aurkezten dugu, San Frantzisko Xabierkoa eta haren historiatik ondoriozta ditzakegun balioak gazteei gerturatzeko; izan ere, beharrezkoak dira gaur egungo mundua guztiontzat justuagoa den leku bilakatzeko.

San Frantzisko Xabierkoa 1506an jaio zen Xabierko gazteluan, Nafarroan. "Misioen historiaren gizandia" deitu izan diote. Ikasketak Parisko unibertsitatean hasi zituenetik, bai fisikoki bai izpiritualki, gehien behar zuen jendearekin egoteen salatu zen Ignazio Loiolakoaren lagun eta jarraitzaile leiala izan zen, eta elkarrekin Jesusen Konpainia sortu zuten. Frantzisko Xabierkoaren alderdirik nabarmenena da gai izan zela sentitzen zuena defendatzeko, bere garaian izan zituen zailltasun guztiak gaindituz. Mota guztietako erosotasunei uko egin zien, eta berdintasuna eta justizia defendatu zituen bere kristau-bizitzaren bi oinarritatik abiatuta: lagun hurkoarenganako maitasuna eta errealtatearekin konpromisoa hartzeko edo inplikatzeko beharra aldaketa sortzeko modu bakar gisa. Gaur egun bere esperientziak ekarpen handia egin diezaioke gazteen heziketari.

"Xabier ezkutututako pertsonaiaren bila dabil..." gida didaktikoak panel-erakusketarekin lan egiteko proposamenak biltzen ditu. Aktibitateak eskaintzen ditu, ikasleek lankidetzan, elkartasunean eta errespetuan oinarritutako jarrerak eta balioak beregana ditzaten eta aniztasuna, justizia eta gizartearen aldeko partaidetza aintzat hartzea errazteko.

San Frantzisko Xabierkoaren irudiaren bitartez azalduko dugu erakusketa, fikziozko egoera baten bidez; Frantzisko haurra da, eta gaur egungo haurren antzeko egoeran bizi da. Erakusketan zehar Xabierrek eta bere lagunek oinartzak jarraitu behar dituzte, eta misterio bat ebatzi: nor da ezkutututako pertsonaia? Talde txiki horrek ezkutututako pertsonaiari buruzko arrastoak aurkitu beharko ditu, etorkizuneko pertsonaiari buruzkoak, hain zuzen.

Lehen hezkuntza-etapetan, haurrentzat gertuagokoak diren gauzak azaldu ditugu, adin horietako haurren ezaugarriak, beharrak eta gaitasunak kontuan hartuz.

Horrela, Frantzisko Xabierkoa haurrak bizitako edota kontatutako zenbait egoera eta eguneroko istorio proposatzen ditugu, eta horietatik abiatuta aipatutako balioak eta jarrerak lantzen joango gara.

Jarduerak lau multzotan egituratu ditugu, adinaren eta landu nahi den oinarritzko balioaren arabera. Jarduera-multzo bakoitza erakusketako panel-talde bati dagokio, hurrengo laukian zehazten dugun moduan:

	Balioa	Izenburua Etorkizuneko pertsonaia(k)...	Panelak	Adina	Jarduerak
A MULTZOA	Lankidetzeta	"... talde-lanean aritzen da. Guztion artean gehiago egin dezakegu."	2, 3, 4	3 - 6 urte	1, 2, 3
B MULTZOA	Elkartasuna / Laguntasuna	"... bere inguruko pertsonen arduratzen da."	5, 6, 7	6 - 8 urte	4, 5, 6
C MULTZOA	Aniztasuna / Errespetua	"... badaki pertsonak desberdinak izan daitezkeela, baino guztiok guztiongandik ikas dezakegu."	8, 9, 10	8 - 10 urte	7, 8, 9
D MULTZOA	Justizia	"... guztiontzat hobea den munduarekin egiten du gainerakoekin amets."	11, 12, 13, 14	10 - 12 urte	10, 11, 12

## 2. Helburuak eta edukiak

### Helburu orokorra

Haurrek San Frantzisko Xabierkoaren bizitzatik ondorioztatzen diren gizartearen aldeko balioak eta jarrerak bereganatzea eta haren irudia ezagutu dezaten erraztea.

### Helburu espezifikoak, adinen arabera

3 - 6 urte	Talde-lana sustatzea.
6 - 8 urte	Gainerakoekin lotura afektibo seguruak sortzea laguntzea.
8 - 10 urte	Pertsonen eta kulturen aniztasuna norberarengan eta besteengan onartu eta baloratzea sustatzea.
10 - 12 urte	Justiziaren zentzua garatzea eta justiziarekiko konpromisoa aktiboki hartzea laguntzea.

## Edukiak, adinen arabera

Adina	Gertaerak eta kontzeptuak	Prozedurak eta gaitasunak	Balioak eta jarrerak
3 - 6	<ul style="list-style-type: none"> <li>Xabierren jaiolekua.</li> <li>Xabierren familia.</li> <li>Gaztelu baten ezaugarriak.</li> <li>Bere familiaren eta gainerakoenen ezaugarriak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldekako elkarrizketa.</li> <li>Entzutea eta irakurrizko ulermena.</li> <li>Xabierren eta haren lagun batzuen familietako kideak identifikatzea.</li> <li>Margotu.</li> <li>Espazialtasuna garatzea.</li> </ul>	Lankidetzatza
6 - 8	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pedro Favre, Ignazio Loiolakoa, Magdalena eta Ana, Xabierren lagunak eta arrebak.</li> <li>Multzo matematikoak.</li> <li>Norberaren ezaugarri fisikoak.</li> <li>Laguntasun-harremanen ezaugarri positiboak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Multzoak osatzea.</li> <li>Taldean hitz egitea.</li> <li>Aldeak eta antzekotasunak identifikatzea.</li> <li>Esaldi bakunak osatzea.</li> </ul>	Laguntasuna / Elkartasuna
8 - 10	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren eta gainerakoien ezaugarri positiboak.</li> <li>Pertsonen arteko aldeak (fisikoak eta izaerari, gustuei, portaerari eta gaitasunei dagozkienak) eta alde kulturalak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldean hitz egitea.</li> <li>Norberaren eta gainerakoien ezaugarri positiboak identifikatzea.</li> <li>Epe laburreko memoria erabiltzea.</li> <li>Irakurrizko ulermena.</li> <li>Testuak sortzea.</li> <li>Taldean erabakiak hartzea.</li> <li>Dramatizazioa.</li> <li>Gatazka-egoeretan sentimenduak identifikatzea.</li> <li>Gatazka konpontzeko estrategia positiboak eta negatiboak bereiztea, norberarengan eta besteengan sortzen dituzten sentimenduen arabera.</li> </ul>	Aniztasuna
10 - 12	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bidegabeko egoerak.</li> <li>Justizia / injustizia kontzeptuak.</li> <li>Milurtekoko Garapen Helburuak.</li> <li>Hezkuntzara sarbidea.</li> <li>Mundu mailako hezkuntza-kanpaina.</li> <li>Ingurumena.</li> <li>Baliabide naturalen erabilera arduratsua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bidegabeko egoerak identifikatzea.</li> <li>Norberaren eta gainerakoien sentimenduak identifikatzea.</li> <li>Enpatia eta gizarte-ikuspegia bereganatzea.</li> <li>Sormena garatzea.</li> <li>Talde-lana egin.</li> <li>Taldekako elkarrizketa.</li> <li>Baliabide naturalen erabilera arduratsua egiten duten ekintzak identifikatzea.</li> </ul>	Justizia

### 3. Metodologia

Jarraian, proposamen didaktiko hau bideratzen duten metodologia-printzipioak eta estrategiak azalduko ditugu:

1. **printzipioa.** **Motibazioa eta sensibilizazioa.** Haurren harmena eta gogo ona handiagotzen saiatzen da, sentimendu positiboak sortuz eta sormena eta grina sustatuz.

*Metodologia-estrategiak:*

- **Errefortzu positiboa.** Ahalik eta gehien erabili, haien gaitasunengan konfiantza transmititzeko eta erdiespen txikiak ere indartzeko, horrek beren buruengan konfiantza edukitzea faboratzen baitu.
- **Girotzea eta prestakuntza.** Haurrak jarduera bakoitzerako prestatuz, haiek motibatzen dituzten faktoreekin erlazioatutako zenbait elementu aurkeztuz eta jarduerarekin erlazioatutako aurreko jakintzetatik eta esperientzietatik abiatuz.

2. **printzipioa.** **Parte-hartzea eta ekintza.** Pertsona bere ikaste-prozesuaren protagonistatzat hartuz. Ekintza parte-hartzearekin erlazioatua dago, eta banakoak inguruneari eragiteko dituzten aukerez kontziente izan daitezen lortzea du helburu.

*Metodologia-estrategiak:*

- **Elkarrizketa sustatzea.** Elkarrizketa bidez beldurrak, nahiak eta interesak adierazten dira, eta, horrela, heziketaren helburuen arteko koherentzia lortzen da.
- **Askatasunaren pedagogia.** Ikasleak ez baldintzatzen eta haien proposamenak prozesu osoan integratzen saiatuz. Pertsona helduak ez du zuzendaria izan behar, orientatzailea baizik. Laguntzen, baina ez erabakitzen.

3. **printzipioa.** **Taldea bitarteko eta helburu gisa.** Taldea banakako zein taldekako esperientziak garatzeko espazio egoki gisa ulertzen da. Horregatik, garrantzitsua da baldintza egokiak sortzea, sistema horrek irakaskuntza-ikasketa prozesuen gain eragin positiboa izan dezan. Horrela, beharrezkoa da talde-erlazioaren alderdiak sustatzea, adibidez, kontzientzia, talde bateko kide izatearen sentimendua, osagai guztien integrazioa eta laguntasun- eta konfiantza-erlazioak.

*Metodologia-estrategiak:*

- **Talde-lana.** Lankidetzeta-gaitasunak eta taldeko kide izatearen sentimendua garatzeko eta taldearen kohesioa faboratzeko modu gisa. Garrantzitsua da haurrek talde-lanaren prozesuaz gozatzea, eta guztien artean lortutako erdiespenak ospatzea.



## 4. Ebaluazioa

Ebaluazioa modu jarraian egin behar da eta hezigarria izan behar da; jardueren garapenean praktika berrorientatzen eta, behar izanez gero, jarduerak talde bakoitzaren beharretara moldatzen lagunduko du. Orobat, etapa bakoitzari dagokion jarduera-multzoa amaitzean, ebaluazio bat egingo da.

Ebaluazio jarraitua jarduera bakoitzaren ebaluazio bidez egingo da. Horretarako, irizpide hauek kontuan hartzeko iradokitzen dugu:

Nork ebaluatzen du? 	Hezitzailea(k)	Haurrak(ek)
Zer ebaluatzen da? 		
Helburuen erdiespena	Planteatutako edukiak bereganatze prozesuan hobetu dute? Hori kontuan hartuz, heziketa-helburua zein mailatan lortu dugula uste dugu?	Zer gauza berri ikasi duzue?
Nork ebaluatzen du? 	Hezitzailea(k)	Haurrak(ek)
Zer ebaluatzen da? 		
Erabilitako metodologia	Planteatutako metodologia-printzipioekin eta estrategiekin bat etorri da? Garatzean zailtasunik izan dugu?	
Jardueraren egokitasuna parte-hartzaileei eta helburuei dagokienez	Jarduera egokia zen parte-hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta? Zer zailtasun izan dugu, izan badugu? Jarduerak heziketa-edukiak barneratzen laguntzen du? Zergatik?	
Parte-hartzaileen gogobetetze-maila	Haurrek gozatu egin dute? Motibatuta eta gogotsu zeuden? Parte hartu dute?	Jarduera gustuko izan duzue? Zer gustatu zaizue gehien, eta zer gutxien? Beste egun batean errepikatu nahiko zenukete?



Heziketa-materialak lantzen jarraitzeko, funtsezko deritzogu horiek erabiltzen dituzten pertsonen ebaluazioak eskuragarri izatea, material horiek hobetzeko bidean aurrera egin dezagun. Beraz, erakusketa eta gidaren inguruko zuen iritziak eta iradokizunak entregatzea edo posta bidez **ALBOANI** ematea eskatzen dizuegu. Postaz emanez gero, hurrengo helbideetako batera bidali:

Aita Lojendio, 2  
48008 **Bilbo**  
Tel.: 944 151 135  
Faxa: 944 161 938  
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2  
31011 **Iruñea**  
Tel.: 948 231 302  
Faxa: 948 264 308  
alboanna@alboan.org

Erronda 7, 4. I  
20001 **Donostia**  
Tel.: 943 275 173  
Faxa: 943 320 267  
alboangi@alboan.org

## 5. **Jarduerak**

### A **MULTZOA** (3-6 urte)

“Etokizuneko pertsonaia... talde-lanean aritzen da. Guztion artean gehiago egin dezakegu”:

- Nire familia.
- Azpilikuetao Gaztelua.
- Xabierren historia.

### B **MULTZOA** (6-8 urte)

“Etokizuneko pertsonaia... bere inguruko pertsonaz arduratzen da”:

- Multzok.
- Nire lagun-taldea eta ni.
- Laguna - besarkada.

### C **MULTZOA** (8-10 urte)

“Etokizuneko pertsonaiak... badaki pertsonak oso desberdinak izan daitezkeela, baina guztiok guztiongandik ikas dezakegu”

- Haizemailea.
- Nik gustuko dut.
- Has dadila ekitaldia!

### D **MULTZOA** (10-12 urte)

“Etokizuneko pertsonaiak... guztiontzat hobea den munduarekin egiten du gainerakoekin amets”

- Bidegabekeria baten historia.
- Eta nik, zer egingo dut??
- Etokizuneko pertsonaia.







Jarduera-fitxa

1. Jarduera

2. Panela

Nire familia



**Helburua:** Familia baten muinaren atal gisa identifikatzea.

### SEKUENTZIA:

**Sarrera:** Hurrei Xabierren familiaren marrazkiren aurkezpena.

**Dinamikaren garapena:**

Margotu Xabierren familiaren marrazkia; marrazkian Joan eta Maria (Xabierren aita eta ama) eta 5 seme-alabak (Joan, Mikel, Ana, Magdalena eta Xabier) ageri dira. Marrazkiak amaitu ondoren, hauren familiez hitz egin daiteke; beren aiten, amen, aitonen edo amonen izen berdina duten, zenbat anai-arreba dituzten, beren aiton-amonekin bizi diren...

**Parte-hartzaileak:** Haur-hezkuntzako 2. zikloko haur-taldea (3-6 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 30 minutu.

**Materiala:** 1. jardueraren material osagarria.  
Koloretako arkatzak.



1. jardueraren material osagarria

Marraskia: "Nire familia"





Jarduera-fitxa

2. Jarduera

2. Panela

Azpilikueta  
Gaztelua



**Helburua:**

Talde-lana eta taldean erabakiak hartzea faboratzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Xabierrek gaztelura bueltatzeko bidea nola aurkitu zuen azaldu historia baten bidez.

**Dinamikaren garapena:**

Ariketa binaka banatuko da. Xabier eta gaztelua elkartzen dituen bidea dagoeneko markatua dago, beraz, talde bakoitzari dagoeneko markatua dagoen bidea koloretako gometsekin erreparatzeko eskatzen zaio. Horretarako, talde bakoitzak kolore bakarra aukeratu behar du.

**Parte-hartzaileak:**

Haur-hezkuntzako 2. zikloko haur-taldeak (3-6 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 20 minutu.



**Materiala:**

2. jardueraren material osagarria.  
Koloretako gometsak.



2. jardueraren material osagarria

"Azpilikuetako Gaztelua"





Jarduera-fitxa

3. Jarduera

3. eta 4. panelak

Xabierren historia



**Helburua:**

Gure eguneroko bizitzako gauzak Xabierren bizitzarekin identifikatu eta erlazionatzea (adibidez, nire familia edo nire jostailuak).

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Atsikitako ipuina nolabaiteko girotzearekin kontatu.

**Dinamikaren garapena:**

Onuragarria izango da giro egokia eta haurrentzat ohikoa ez den girotzea sortzea. Historia kontatu, eta gero haiei buruzko zenbait galdera egiten dira ipuinarekin erlazionatuta, talde handian hitz egiteko.

**Parte-hartzaileak:**

Haur-hezkuntzako 2. zikloko haur-taldeak (3-6 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 30 minutu.

**Materiala:**

3. jardueraren material osagarria.

3. jardueraren material osagarria

**Ipuina**

"Gazteluen, zaldunen eta damen garaietan Nafarroako Azpilikueta eskualdean oso berezia zen haur bat jaio zen: Frantzisko Xabierkoa, guztiek Xabier deitzen zutena.

Haren familia oso handia zen, eta haren gurasoen izenak Joan Jaso eta Maria Azpilikueta ziren. Lau anai-arreba zituen, bi mutil eta bi neska: Joan, Mikel, Ana eta Magdalena.

Gazteluan hazi zen, egunero jolastuz eta ikasiz. Egun batez, bere anai-arrebekin eta gertuko beste gaztelu batzuetako lagunekin esploratzaileetara jolasten ari zela, gazteluaren gela handietako baten hondoan kutxa sekretu bat aurkitu zuten. Guztiek kutxa ireki nahi zuten, zer altxor aurkitu zuten jakiteko. Azkenean sarraila irekitzea lortu zuten, eta barnean mota askotako jostailuak aurkitu zituzten; bakoitzak gustukoen zuena aukeratu zuen. Xabierrek ziba batek bezala bira egiten zuen gurpil bat hartzea erabaki zuen. Beren altxor berriarekin oso pozik zeudenez, beren familiei erakustera joan ziren.

Xabier korrika joan zen amari jostailu berria erakustera, baina laster nekatu eta aspertzen hasi zen. Arrebaren bila joatea erabaki zuen, eta bera bezain aspertuta aurkitu zuen; eta gauza bera gertatu zitzaizen lagun guztiei.

Orduan norbaitek proposatu zien gazteluko jolas-gelan elkartzea eta guztien piezekin jostailu bat sortzea denen artean. Horixe egin zuten: bakoitza bere gelara joan zen bere altxor-zatiaren bila, eta gero jolas-gelara eraman zuten.

Jolas-gelara iritsi zirenean piezak trukutzen eta besteenekin jolasten hasi ziren guztiak. Bat-batean Mikelek "Begira, automobil bat" esan zuen oihuka. Konturatu gabe automobil bat egin zuten kutxan aurkitutako pieza guztiekin.

Egun horretatik aurrera, gazteluko haur guztiek aurkitutako pieza guztiak eta oparitan jasotako jostailu berriak jolas-gelara eraman zituzten. Han, guztiek elkarrekin jolasten zuten, egun hartan asmatutako automobilarekin egin zuten bezala."

### Galderak:

- Non jaio zinen?
- Nola dute izena zure gurasoek? Baduzu anai-arrebarik? Nola dute izena?
- Gaztelu batean izan zara inoiz?
- Zein da zure jostailurik gustukoena?
- Jostailurik eraiki duzu inoiz zure gurasoekin, lagunekin...?



Jarduera-fitxa

4. Jarduera

5., 6. eta 7. panelak

Multzoak



**Helburua:**

Lagunen garrantziaz ohartu, eta elkarrekiko ardura- eta laguntza-jarrerak garatzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Xabierrek aurkeztutako lagunak zein diren igarri behar dute paneletan.

**Dinamikaren garapena:**

Jarduera honi dagokion material osagarriaren orri bat eman behar zaio bakoitzari. Pertsona-talde guztien artean Pedro, Ignazio, Magdalena, Ana eta Xabier identifikatu behar dituzte. Bakoitzaren inguruan biribil bat egin behar dute, identifikatzeko. Jarraian Xabier eta haren lagun-taldea marraztu eta margotu behar dituzte.

Dinamika hori egin ondoren, talde handian beren lagunei buruz hitz egitera animatu behar dira, galdera hauen bidez:

- Nor dira zure lagunak?
- Gogoratzen duzu zure lagunek lagundu zaituzten aldiren bat?
- Eta zuk haiei lagundu diezun aldiren bat?

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 1. zikloko haur-taldeak (6-8 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 40 minutu.

**Materiala:**

4. jardueraren material osagarria.

15

4. jardueraren material osagarria

"Multzok"









Jarduera-fitxa **5. jarduera**

5., 6. eta 7. panelak

Nire lagun-taldea  
eta ni



**Helburua:** Norberaren ezaugarri pertsonalez eta kideenez jabetzea.

### SEKUENTZIA:

**Sarrera:** Jarduera proposatu aurretik, haurrek beren laguntasunaren kutxan nor sartuko luketen pentsatu behar dute.

#### Dinamikaren garapena:

Hori pentsatu ondoren, beren lagun guztiak marraztu behar dituzte. Marrazkia amaitu ondoren, talde handian beren lagunen ezaugarri fisikoak eta beren arteko aldeak eta antzekotasunak azaldu behar dituzte.

**Parte-hartzaileak:** Lehen hezkuntzako 1. zikloko haur-taldeak (6-8 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 40 minutu.

**Materiala:** Paper zuri bat eta koloretako arkatzak edo margoak.



Jarduera-fitxa

6. Jarduera

5., 6. eta 7. panelak

Laguna -  
besarkada



**Helburua:**

Laguntasun-erlazioen ezaugarri diren elementuak identifikatu, eta beren garrantzia baloratzera hurbiltzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Jarduera-multzoko gainerako jarduerak egin ez badira, historiak birgogoratzea gomendatzen da, haurrak giroan sartzeko.

**Dinamikaren garapena:**

Ikasleei hurrengo hitz hauek dituzten esaldiak osatzeko eskatzen zaie:

Laguna – besarkada

Laguna – jolastu

Laguna – kutxa

Laguna – behar izan

Xabierren altxorra

Laguna – maite izan

Esaldiak amaitu ondoren, garrantzitsua da beren gelakideekin partekatzea. Hezitzaileak elkarrizketa bideratuko du, laguntasun-erlazioen ezaugarri positiboak adierazten dituzten esaldiak identifikatzeko.

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 1. zikloko haur-taldeak (6-8 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 45 minutu.

**Materiala:**

Koadernoak eta bolalumak.



Jarduera-fitxa

7. Jarduera

8., 9. eta 10. panelak  
Haizemailea



**Helburua:** Norberaren eta gainerakoen balorazio positiboa sustatzea.

### SEKUENTZIA:

**Sarrera:** Helburua ikasle bakoitzak bere buruari buruzko ideia positiboa sortzea da, berak bere kideen ezaugarri positiboak identifikatu bitartean besteek ematen dizkieten arrastoetan oinarrituta.

#### Dinamikaren garapena:

Jarduera hau 6 pertsonako taldeetan egitea gomendatzen dugu. Dinamika hau haur bakoitzaren izena orri baten eskuinaldeko goi-marjinan idaztean datza. Ikasleei esan behar zaie orriaren behealdea orriari dagokion pertsonaren alderdi positiboekin bete behar dutela guztiek. Idatzi ondoren, orria tolestu behar da bertan idatzitakoa ikus ez dadin, eta eskuineko kideari pasatu behar zaio orria. Une berean pasatu behar dizkiote orriak elkarri. Amaieran, orria jabearengana iritsiko da, haizemaile formarekin. Guztiek beren haizemailea dutenean, irakurri egingo dute, eta taldearekin nahi dutena partekatuko dute.

**Parte-hartzaileak:** Lehen hezkuntzako 2. zikloko haur-taldeak (8-10 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 50 minutu.

**Materiala:** Orri bat eta bolaluma bat.



Jarduera-fitxa

8. Jarduera

8., 9. eta 10. panelak

Nik gustuko  
dut



**Helburua:** Pertsonen arteko aniztasuna ezagutzea, onartzea eta aintzat hartzea.

### SEKUENTZIA:

**Sarrera:** Beren izena eta identifikatzen dituen bereizgarri positibo bat esatean datza: ongi egiten dakiten zerbait, egitea gustuko duten zerbait edo izaeraren eta portaeraren ezaugarri positibo bat.

#### Dinamikaren garapena:

Dinamika hau ahalik eta azkarren egin behar da; lehen ikasleak bere zatia egin duenean bigarrenak dagokion zatia esan eta lehenengoarena errepikatu behar du. Hori segidan gertatuko da, guztiek beren ezaugarria esan eta kide guztienak errepikatu arte. Ikasgelan 25 ikasle badaude dinamika gehiegi luza daiteke; beraz, ezaugarriak hamarnaka memorizatzea proposatzen dugu. Dinamika amaitu ondoren saiakuntza talde handian komentatuko da, galdera hauekin:

- Nola sentitu zara jarduera egiten ari ginen bitartean?
- Zugan edo besteengan ezagutzen ez zenuen gauza berririk aurkitu duzu?

**Parte-hartzaileak:** Lehen hezkuntzako 2. zikloko haur-taldeak (8-10 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 30 minutu.



Jarduera-fitxa

9. Jarduera

8., 9. eta 10. panelak  
Has dadila ekitaldia!

**Helburua:**

Ezagutzen ez ditugun kulturetara hurbiltzeak duen garrantziaz ohartzea.  
Kulturen arteko topaketa landu, eta ikasitakoa eta hartu-emanak baloratzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Ikasleei jarduera-multzo honi dagozkion panelen laburpen bat egitea proposatzen zaie.

**Dinamikaren garapena:**

Ikasleei dramatizazio bat egitea proposatzen zaie: beste kultura batzuetako jendearekin topo egingo dute, eta elkarren ohiturak ezagutuko dituzte. Egoera erakusketan ageri dena edo ikasleek asmatutakoa izan daiteke. Dinamika hiru fasetan banatuko litzateke:

1. Oinarrizko testu bat sortu (taldearen arabera fase horretan pertsona heldu baten laguntza beharrezkoa izango den baloratu behar da).
2. Pertsonaiak banatu.
3. Antzeztu.

Talde txikiak (5 edo 6 personakoak) egitea gomendatzen dugu, horrek lana errazten baitu. Dramatizazio bakoitzaren ondoren, jarraibide hauekin hitz egitera bultzatu behar da taldea:

- Nola sentitu da pertsona bakoitza bere paperean?
- Haien ustez nola jokatzen dute pertsonaiek, eta zergatik uste dute horrela jokatu dutela?
- Zure ustez, zer ikasi du pertsonaia bakoitzak?

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 2. zikloko haur-taldeak (8-10 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 40 minutuko 2 saio.



Jarduera-fitxa

10. Jarduera

11. eta 12. panelak

Bidegabekeria  
baten historia



**Helburua:**

Injustizia-egoerak identifikatzea eta horien balorazio negatiboa egitea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Ikasleei protagonista zein ikusle gisa bizitako azken gizarte-injustizia imajinatzeko eskatuko zaie.

**Dinamikaren garapena:**

Dinamika binaka egin behar da. Imajinatu duten egoeraren arabera komiki bat –gutxienez 6 biñetakoa– egiteko eskatu behar zaie, injustizia eta hori sorrarazten edo sustatzen duten gauzak azaltzeko. Gero, ikaskideek beren historiak erakutsiko dizkiete elkarri. Hezitzaileak elkarriketa gidatuko du, hurrengo jarraibide hauek gogoan hartuz:

- Injustizia-egoera da? Zergatik?
- Nola sentitzen gara horrelako egoeretan?
- Zer egin nahiko genuke guri gertatuko balitzaigu, edo ikusle gisa biziko bagenu?
- Gure ustez, zer egin beharko genuke?

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 3. zikloko haur-taldeak (10-12 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 40 minutu.

**Materiala:**

Orriak, koloretako arkatzak eta arkatzak.



Jarduera-fitxa

11. Jarduera

13. eta 14. panelak

Eta nik,  
zer egingo dut??



**Helburua:**

Ezagutzen dituzten injustizia-egoerak aldatzeko, gizartearen inplikazio-jarrera garatzea faboratzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Jarduera-multzo honi dagokion paneleko biñetetan azaldutako egoera laburki gogoratu. Material gehigarria banatu, eta Milurtekoko Garapen Helburuak zer diren eta, orobat, guztiontzat heziketa duina lortzea beharrezkoa dela azaldu. Halaber, Xabierrek haur guztien heziketaren alde lan egin zuela azaltzen da, eta gaur egun bere kideak pertsona guztientzako kalitateko heziketaren alde jarduten direla.

**Dinamikaren garapena:**

Bi helburu besteak baino mantsoago azaltzen dira (adibidez, 2.a eta 7.a). Dinamika 5 edo 6 pertsonako taldetan egiten da. Talde bakoitzak azaldutako bi helburuetatik bat aukeratu behar du, eta, guztien artean, helburu hori lortzeko guztiok egin ditzakegun gauzei buruzko collagea egin beharko dute, aldizkariekin eta kartoi mehearekin. Collagea amaitu ondoren, ikasleek elkarri erakutsiko dizkiete, eta ikasgelan ikusgai jarriko dira.

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 3. zikloko haur-taldeak (10-12 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:**

60 minutu.

**Materiala:**

Kartoi mehea, arkatzak, errotuladoreak, kola, guraizeak, borragomak. Egunkariak eta aldizkariak.  
Material osagarria.



## 11. jardueraren material osagarria

### Milurtekoko Garapen Helburuak

Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) 2000. urteko Milurtekoko Gailurrean finkatu ziren, pobrezia eta haren kausa eta adierazpen guztiak murrizteko:

Milurtekoko Garapen Helburuak hauek dira:

1. Muturreko pobreziarekin eta gosearekin amaitzea.
2. Mundu mailako lehen hezkuntza lortzea.
3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea.
4. Hauren heriotza-tasa murriztea.
5. Amen osasuna hobetzea.
6. HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
7. Ingurumenari dagokionez, jasangarritasuna bermatzea.
8. Garapenerako mundu-elkarte bat sustatzea.

Informazio gehiago [www.sinexcusas2015.org](http://www.sinexcusas2015.org) web-orrian eta heziketari buruzko informazio gehiago [www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org) web-orrian.



Jarduera-fitxa

12. Jarduera

13. eta 14. panelak

Etorkizuneko  
pertsoneia



**Helburua:**

Gizartearen aldeko inplikazio jarrera garatzea eta nork bere garapen pertsonalarekin konpromisoa hartzea faboratzea.

**SEKUENTZIA:**

**Sarrera:** Etorkizuneko hiritarrak direla eta haien inguruko munduko protagonistak direla eta izango direla azaltzea.

**Dinamikaren garapena:**

Elkarrizketa sortu 5-6 pertsonako talde txikitan, hurrengo galdera hauei erantzunez. Irudikatu erretratu batean etorkizuneko pertsonaia eta, orobat, taldean komentatu diren ideiak.

Talde txikian atera diren ideiak eta marrazkiak elkarri erakutsi.

- Etorkizuneko pertsonaiari beste ezaugarriren bat gehituko zenioke?
- Zuk ezaugarri horiek dituzula uste duzu?
- Zer ezaugarri iruditzen zaizu garatzen zailena?

**Parte-hartzaileak:**

Lehen hezkuntzako 3. zikloko haur-taldeak (10-12 urtekoak).

**Zenbatetsitako denbora:** 50 minutu.

**Materiala:**

Kartoi meheak, errotuladoreak, margoak.

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian gutxiak**

... eta ...

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Elkartzeko pertsonak: taldean lan egin du, gutxiak irabazi gehiago agin desabegi.**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Elkartzeko pertsonak: pertsonak elkarrekin lan egin dezakete baina gutxiagorik lan egin dezakete daktu.**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**HEZKUNTZAREN**

... eta ...

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Asian eskualdeko pertsonen eta daktu elkartzeko pertsona**

**Sistema orain pertsona, elkartzeko pertsona, daktuak dituzte.**



**ALBOAN**

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

**Iruñea**

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea  
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308  
E-mail: [alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org)

**Bilbo**

Aita Lojendio 2 • 48008 Bilbo  
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938  
E-mail: [alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org)

**Donostia**

Erronda, 7, 4. I • 20001 Donostia  
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267  
E-mail: [alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org)